ARAUAK

1. Probak San Silvestre Donostiarra du izena. Nahi duen edonork parte har dezake proba honetan, kategoria, sexu edo nazionalitatea edozein dela ere, federatua egon edo ez, baldin eta 16 urte beteak baditu.
2. Lasterketa asfalto gainekoa izango da, Donostian zeharreko hiri-ibilbide batean.
3. Izen-ematea sansilvestredonostiarra.com webgunearen eta kronoak.com bitartez egin ahal izango da. 13 €-ko izen-emate orokorra izango da. Txip-dortsala jasoko da, eta ez da itzuli beharko lasterketa amaitzean. Izena eman ondoren ez da diru-itzulerarik egingo. Abenduaren 28tik aurrera internet bidez ere egin ahal izango da izen-ematea, 18€-ko prezioan.

   Izena eman ondoren, inola ere ez (besteak beste, istripuak, lesioak, doako inskripzioak eta abar barne hartuta, baina ez mugatuta), zenbatekoa itzuliko da. Dortsalen titulartasuna ere ez da aldatuko.
4. Dortsala jasotzeko abenduaren 30ean goizeko 10tatik atsaldeko 20tara Amarako frontoian.
5. KATEGORIAK: Kategoria bakarra egongo da sexu bakoitzeko:
   - **Gizonezko Absolutua**
   - **Emakumezko Absolutua**
6. **Nahitaezkoa izango da dortsala ematea, bai eta probaren kamiseta ere. Antolakuntzaren esku geratuko da dagokien kamiseta eta dortsala modu egokian bistaratuta ez duten pertsonak kanporatzeko eskubidea.**
7. SUPER AMARAk eskainitako “gabonetako oparitxo” bat izango dute lehen hiru sailkatuek, eta lehen 5 sailkatuei SUPER AMARAren edozein establezimendutan erabiltzeko txertelak emango zaizkie. **Sariak eskuratu ahal izateko, ezinbestekoa izango da antolakuntzak emandako kamiseta eta dortsala jantzita lehiatzea.**

   1. Txapela, "gabonetako oparitxoa" eta 400€ SUPER AMARA txartelean.

2. "Gabonetako oparitxoa " eta 250€ SUPER AMARA txartelean.
3. "Gabonetako oparitxoa " eta 150€ SUPER AMARA txartelean.
4. 100€ SUPER AMARA txartelean.
5. 50€ SUPER AMARA txartelean.

Mozorrotuta parte hartzen dutenen artean, Gabonetako saski handi baten opari berezia emango da. Saria lasterketa amaitzean emango da.

8. Lasterketaren kontrola Amara Kirol Elkarteko boluntarioek egingo dute.
9. Antolakuntzak parte-hartzaile guztiei gomendatzen die osasun-azterketa bat egin dezatela lasterketaren aurretik, eta parte-hartzaileak bere gain hartzen du kirol-jarduera honek ekar diezaiokeen edozein arrisku.
10. Antolakuntzak ez du bere gain hartzen inolako erantzukizunik proba honetan parte hartzean pertsonak jasan ditzakeen kalte, galera edo lesioengatik, ez hark beste bati sortutakoengatik, ez eta hirugarren batek parte-hartzaileari eragindakoengatik ere.
11. Antolakuntzak ez du bere gain hartzen galdu/lapurtu litezkeen objektuen erantzukizunik. Horregatik, motxilan baliozko gauzarik ez uztea gomendatzen da.
12. Parte-hartzaile guztiek, proban parte hartzeagatik, KIROL-ASEGURU BATEN ESTALDURA izango dute.
13. Parte-hartzaile guztiek, proban parte hartzeagatik, honako Arautegi hau onartzen dute. Arautegi honetan zehazten ez den guztia GAFen Arautegian ezarritakoaren arabera ebatziko da.
14. Kronometratzea MyLaps Systemak egingo du. Hala ere, gogoratu behar da lasterketa festa-jarduera bat dela, eta bigarren maila batean utzi nahi dugula “lehiaren” arloa.